

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: ¿ES EL DERECHO LO QUE PARECE? MITOS Y FALACIAS DE LA CULTURA JURÍDICA QUE DEBILITAN EL VÍNCULO SOCIAL

Irakaslea/Profesor/a: Fco. Javier Ezquiaga Ganuzas, Iker Nabaskues Martínez de Eulate, Maggy Barrère Unzueta, Alazne Irigoien Domínguez

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Zuzenbidea dirudiena ote den geure buruari galdetzeak balio digu ezbaian jartzeko Zuzenbidearen ikuskerarik zabalduena, zeinaren arabera parlamentuan onartu, legelariak ezagutu eta epaileek aplikatzen duen arau multzo bat den Zuzenbidea. Zuzenbidea ulertzeko modu hori zalantzan jartzeko, berrikusi egin behar dira hura sostengatzen duten fikzioak edo dogmak (eta, hala ere, egia balira bezala funtzionatzen dutenak): botere banaketaren printzipioa, idatzizko arauen objektibotasuna, haien aplikazioaren neutraltasuna eta inpartzialtasuna, edo, urrunago joan gabe, legearen aurrean denok berdinak garela. Kultura juridikoaren mitoak eta falaziak identifikatzeak berekin dakar zalantzan jartzea ideia horiek, herritarren artean sustraiturik jarraitzen dutenak eguneroko errealitateak gezurtatu arren, eta horrek elikatu egiten du Zuzenbidearen ikuspegi nagusi hori: "Zuzenbidea dirudiena da". Zuzenbidearen ikuskera hori zabaltzeak *statu quo*-ari eusteko balio du, baina kontua da *statu quo*-aren defentsa urrun dagoela justizia patroia onargarrietan oinarritzetik. Horregatik planteatu eta aztertu behar da Zuzenbidearen edo, nahi izanez gero, arlo juridikoaren kontzepzio bat, BOEn argitaratzen denaz eta teknika juridikoaz harago doana, herritarren jardueraz eta parte-hartzeaz elikatzen den fenomeno sozial gisa identifikatzeko, non botere egiturek eta harremanek esku hartzen duten, baina baita horiek irauliko dituzten justizia edo berdintasun patroiek ere, horiek gabe ezinezkoa baita bizikidetzak ahalbidetzen duen lotura sozialari eustea.

Gaitasunak/Competencias

-Zuzenbidearen ikusmolde hegemonikoa ezagutzea eta haren dogmak, mitoak eta egia faltsuak identifikatzea.

-Zuzenbidea herritarren parte-hartzearekin eta justizia sozialeko balioekin lotutako gizarte fenomeno gisa ulertzeko modua aztertzea.

Edukiak/Contenidos

Zuzenbidea ulertzeko modu nagusiaren mitoak eta faltsukeriak.

Subjektua, gorputza eta duintasuna, kultura juridiko berri baterako gogoeta elementu gisa.

Berdintasunaren falaziak, unibertsaltasun faltsua eta diskriminazioaren aurkako zuzenbide formalista-liberalaren gabeziak.

Estereotipazioa zalantzan jartzea eta interseksionalitatea, diskriminazioaren aurkako zuzenbide berri baten ideia-indar gisa.

Metodologia/Metodología

Irakasgaia irakastean erabiliko da metodologia aktibo bat, oinarri hartuta hainbat egoera eta kasu, zeinentzat irtenbiderik aurreikusi ez den, tresna kontzeptualak baizik, ahalbidetuko dutenak gogoeta egitea eta norberaren ezagutza eraikitzea –edo, hala badagokio– berreraikitzea. Metodologia horren oinarrian dago pentsamendua edo gogoeta bultzatzea (*thinking based learning*), buruz ikastea baino gehiago, eta bereziki azpimarratzen da ideiak trukatzearen, pentsamendu kritikoa garatzearen eta komunikazio eraginkorraren garrantzia.

Bibliografia/Bibliografía

F. J. Ezquiagaren ardurapean dagoen edukiarentzat:

ATRIA, Fernando, "La ironía del positivismo jurídico", in Doxa. Cuadernos de Filosofía del Derecho, nº 27 2004, 81-139. or.

BOBBIO, Norberto, El positivismo jurídico. Gazt. itzul.: R. de Asís eta A. Greppi, Madril: Debate, 1993.

CHIASSONI, Pierluigi, El discreto placer del positivismo jurídico, P. Moreno (ed.) eta M.A. Moreno (itzul.), Bogota: Universidad Externado de Colombia, 2016.

I. Nabaskuesen ardurapean dagoen edukiarentzat:

Dietmar VON PFORDTEN, Dignidad humana, Atelier, 2020.

Manuel Atienza, Sobre la dignidad humana, Trotta, 2022.

Maurice Merleau Ponty, Phenomenology of perception, Routledge, 2013.

Mario A. Presas, En busca de la conciencia corporal, Ariel, 2021.

Kierkegaard Soren, El instante, Trotta, 2013.

M. Barrère eta A. Irigoien ardurapean dagoen edukiarentzat:

BARRÈRE UNZUETA, M. (2014). El Derecho antidiscriminatorio y sus límites. Ed. Grijley.

BARRÈRE UNZUETA, M. (2019). Feminismo y Derecho. Fragmentos para un Derecho antidisubordinatorio. Ed. Olejnik.

DE LAMO VELADO, I. (2022). Lo personal es jurídico: Apuntes para pensar el derecho desde la teoría feminista. Atelier libros jurídicos.

IRIGOIEN DOMÍNGUEZ, A. (2024). Interseccionalidad y anti-estereotipación como recursos de un derecho antidiscriminatorio crítico. Especial referencia al ámbito de la CAPV. IVAP.

LA BARBERA, M. C. & M. CRUELLES (Ed.). 2016 Igualdad de género y no discriminación en España: evolución, problemas y perspectivas. CEPC.

MORONDO, D., DE LA CRUZ, C. & LA ESPINA, E. (Koord.) (2021). Desigualdades Complejas e Interseccionalidad: una revisión crítica. Dykinson:

REY MARTÍNEZ, F. (2019). Derecho Antidiscriminatorio. Aranzadi.